



**Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpena, zeinaren bidez ebazten baita Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuan aurreikusten diren neurrien eta ondoko aldaketen aplikazioaren eraginpean dauden udalerrien zerrenda**

Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuak, prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratzen ditu, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. Dekretua 2020ko abenduaren 11ko 248. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Neurriak egoera horretara egokitzen direla bermatzeko egoera epidemiologikoaren inguruan egiten den etengabeko ebaluazioaren eta segimenduaren ondorioz, neurri horien aldaketak eta egokitzapenak egin behar izan dira, eta horiek 44/2020 Dekretuaren ondoko dekretu batzuetan jaso dira. Zehazki, gaur arte, abenduaren 22ko 47/2020, urtarrilaren 12ko 1/2021 eta urtarrilaren 22ko 4/2021 Dekretuen bidez.

Era berean, kautela-neurrien 12/2021 pieza bereizian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren Hirugarren Sekzioak, 2021eko otsailaren 9ko autoaren bidez, kautelaz erabaki du ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuak berriz irekitzeko arauei buruzko tartekiaren indarraldia etetea, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren eranskineko 9.1) atalekoa, Lehendakariaren urtarrilaren 22ko 4/2021 Dekretuak luzatutakoa. Indarraldia eteteak esan nahi du aipatutako establezimenduak jendearentzat ireki ahal izango direla, abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren 9. ataleko 3. puntuan ezarritako neurriak betez, urtarrilaren 22ko 4/2021 Dekretuak emandako idazketakoak.

**Resolución de la Directora de Salud Pública y Adicciones por la que se determina la relación de municipios afectados por la aplicación de las medidas previstas en el Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari y sus posteriores modificaciones**

El Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari, refunde en un único texto y actualiza las medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 248, de 11 de diciembre de 2020.

La evaluación continua y seguimiento permanente de la situación epidemiológica para garantizar la adecuación de las medidas a dicha situación ha deparado la necesidad de adoptar modificaciones y adaptaciones de esas medidas, reflejadas en decretos posteriores al citado 44/2020. En concreto, y hasta la fecha, por los Decretos 47/2020, de 22 de diciembre, el Decreto 1/2021, de 12 de enero y el Decreto 4/2021, de 22 de enero.

Asimismo en pieza separada de medidas cautelares 12/2021 la Sección Tercera de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, mediante Auto de fecha 9 de febrero de 2021, ha acordado cautelarmente la suspensión de la vigencia del inciso relativo a reglas de reapertura de establecimientos y servicios de hostelería y restauración del apartado 9.1) del anexo del Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari, prorrogado por Decreto 4/2021, de 22 de enero, del Lehendakari. Dicha suspensión de vigencia implica que podrá abrirse al público los mencionados establecimientos, cumpliendo las medidas establecidas en el punto 3 apartado 9 del Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, en redacción dada por el Decreto 4/2021, de 22 de enero.



Auto horretan agindutakoaren norainokoak ez die eragiten dekretu horretan araututako gainerako neurriei, hala nola jokoen eta apustuen establezimendu eta lokalei eta kirolari buruzkoei, COVID-19ak azken 14 egunetan izandako kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua hartzen dute erreferentziatzat, 100.000 biztanleko 500 kasukoa.

Bada, segurtasun juridikoko irizpide argi baten ondorioz, beharrezkotzat jotzen da honako hau argitzea: ebazpen horretan jaso diren udalerriak 44/2020 Dekretuaren eta ondoko aldaketan ondorioz hartzen diren neurri guztien eraginpean daudela eta intzidentzia-tasa hori hartu behar dutela aintzat.

Hori dela eta, 44/2020 Dekretuan eta ondoko aldaketetan ezarritakoa betetzeko, eta Osasun Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen Dekretuaren (apirilaren 11ko 80/2017 Dekretua) 9. artikulua esleitzen dizkidan funtzioen arabera,

#### **HONAKO HAU EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.** – Argitaratu egingo da COVID-19ak eragindako kasu positiboak azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua, gaur egun, 100.000 biztanleko 500ekoa edo handiagoa duten 5.000 biztanletik gorako udalerrien zerrenda, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuan eta hura aldatzen duten ondokoetan ezartzen diren neurriak aplikatzeko.

Honako hauek dira udalerriak:  
**Derio, Oñati, Santurtzi.**

**BIGARRENA.** – Onetsi egingo da, ebazpen honi erantsitako txosten epidemiologikoen dakartenarekin bat etorriz, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuan ezarri diren neurriak aplikatzeko beharra duen egoera epidemiologikoa bizi duten 5.000 biztanletik beherako udalerrien zerrenda:

El alcance de lo ordenado en el indicado Auto no afecta al resto de medidas reguladas en el indicado Decreto, tales como las relativas a establecimientos y locales de juegos y apuestas y al deporte, toman como referencia la Tasa de Incidencia Acumulada de casos positivos por COVID-19 en los últimos 14 días de 500 por cada 100.000 habitantes.

Pues bien, por un evidente criterio de seguridad jurídica, se entiende necesario aclarar que los municipios relacionados en esta resolución se ven afectados por la totalidad de las medidas que el Decreto 44/2020 y sus posteriores modificaciones puedan adoptar y que tomen como referencia la citada tasa de incidencia.

Por ello, y en cumplimiento de lo establecido en Decreto 44/2020 y sus posteriores modificaciones, y en virtud de las funciones que me vienen atribuidas por el artículo 9 del Decreto 80/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud,

#### **RESUELVO:**

**PRIMERO.** – Dar publicidad, a todos los efectos de la aplicación de las medidas establecidas en el Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari, y posteriores que lo modifiquen, a la relación de municipios con una población superior a 5.000 habitantes y cuya tasa de incidencia acumulada de casos positivos por COVID-19 en los últimos 14 días iguala o supera, a día de hoy, la cifra de 500 por cada 100.000 habitantes.

Dichos municipios son los siguientes:  
**Derio, Oñati, Santurtzi.**

**SEGUNDO.** – Aprobar, de acuerdo con los informes epidemiológicos anexos a esta resolución, la relación de municipios con una población inferior a 5.000 habitantes y cuya situación epidemiológica requiera la aplicación de las medidas establecidas en el Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del



Gaur egun, ez dago 5.000 biztanletik behera-ko udalerririk egoera horretan.

**HIRUGARRENA.** - Ebazpen hau eraginkorra izango da Osasun Sailaren web-orrian (<https://www.euskadi.eus>) argitaratu eta biharamunetik aurrera, eta haren ondorioak indarrean egongo dira, harik eta hurrengo ebazpena eman arte, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuan aurreikusten diren baldintzetan eta maiztasunean.

**LAUGARRENA.** - Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta gora jotzeko errekurtoa aurkeztu dakioke Osasun Sailburuordetzan, hilabeteko epean, Osasun Sailaren web-orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Lehendakari: Actualmente, no hay municipios de menos de 5.000 habitantes en esa situación.

**TERCERO.** - Esta resolución será eficaz a partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Salud (<https://www.euskadi.eus>) y mantendrá sus efectos hasta que sea sustituida por otra posterior que se dicte en los términos y con la periodicidad prevista en el Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari.

**CUARTO.** - Esta resolución, que no agota la vía administrativa, podrá ser recurrida en alzada ante el Viceconsejero de Salud en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Salud.

Gasteiz, 2021eko martxoaren 1a  
En Vitoria-Gasteiz, a 1 de marzo de 2021

Sin. / Fdo.: **Itziar LARIZGOITIA JAUREGUI**  
OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA  
DIRECTORA DE SALUD PÚBLICA Y ADICCIONES



## ERANSKINA. 14 EGUNEAN METATUTAKO INTZIDENTZIA-TASA 100.000 BIZTANLEKO 500 BAINO HANDIAGOA DUTEN UDALERRIEI BURUZKO INFORMAZIOA

2021ko otsailaren 28ko datuak

### 5000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak

UDALERRIA	14 eguneko tasa
Derio	578,47
Oñati	994,07
Santurtzi	600,74

### 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak

Honako hauek dira 5.000 biztanletik beherako udalerrietan zerrenda zehazteko erabili diren irizpide epidemiologikoa:

- Azken 14 egunotan COVID-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua udalerrian 500ekoa edo handiagoa izatea 100.000 biztanleko.
- Azken 14 egunotan COVID-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua udalerriri dagokion oinarrizko osasun-eremuan 500ekoa edo handiagoa izatea 100.000 biztanleko.
- Udalerrian COVID-19aren kasu positiboen kopurua azken 7 egunetan 2 baino gehiago izatea.

**Ez dago 5.000 biztanletik beherako udalerririk baldintza horiek betetzen dituenik**



## ANEXO. INFORMACIÓN RELATIVA A MUNICIPIOS CON INCIDENCIA ACUMULADA EN 14 DÍAS SUPERIOR A 500 CASOS POR 100.000 HABITANTES

Datos correspondientes al día 28 de febrero de 2021

### Municipios de más de 5000 habitantes

MUNICIPIO	Tasa 14 días
Derio	578,47
Oñati	994,07
Santurtzi	600,74

### Municipios de menos de 5000 habitantes

Los criterios epidemiológicos utilizados para determinar la lista de municipios de menos de 5.000 habitantes son:

- Tasa de incidencia acumulada de casos positivos por COVID-19 en los últimos 14 días igual o superior a 500 por cada 100.000 habitantes en el municipio.
- Tasa de incidencia acumulada de casos positivos por COVID-19 en los últimos 14 días igual o superior a 500 por cada 100.000 habitantes en la zona básica de salud correspondiente al municipio
- Número de casos positivos en el municipio por COVID-19 durante los últimos 7 días superior a 2.

**No hay municipios de menos de 5000 habitantes que cumplan estas condiciones**